

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1642

336/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Iñigo Arcaute Cordón jauna Arabako Errioxa / Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa Teknikoko zuzendari izendatzen duena.

Aztertu dugu Arabako Errioxa / Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa Teknikoko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 25eko 69/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko otsailaren 10eko EHAA (27. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Iñigo Arcaute Cordón jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da

Hori guztia dela eta, zuzendaritza nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iñigo Arcaute Cordón jauna izendatzea Arabako Errioxa / Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Kudeaketa Teknikoko zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera emango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.